

## HARRIRIK GABE HEGAN EGIN DAITEKE



Harririk gabe, hegan, itzaina airean daramala irudikatu du Jokin Eizagirre "Txitxo" sortzaileak herriko festen maskota gorpuzten duten idi-pareá. Egitarauak horrela iragarri ez arren, Santixabelen hasiera bertan dela adierazten duen performance inprobisatua eskainiko du artistak, Mikel semea laguntzaile duela. Agian, plazara gerturatu eta urteetan zehar idi-probak ikusi dituen herritarrak, oroimenez begiratuko du hutsa den plaza. Agian, lillurak txundituko du inoiz idi-probarik ikusi ez duen umea, jostaleku duen plazan idi-parea hegan ikusi duenean. Bitartean, artistaren begirada adi dago herrian barna, datorren urteko maskota gorpuztuko duen hari-muturraren bila.







